- 204.** Ikerketaren arloan erabaki nahi dut ikerketak, hezkuntzak bezala, gure herriaren helburua izan behar duelako eta hori ez da gertatu orain arte Espainiako Estatuan
- 205.** Ikerketa garatzeko finantzamendu iraunkorra eta jasangarria nahi ditudalako erabaki nahi dut
- 206.** Ikerlari gazteei arreta berezia ematea nahi diedalako erabaki nahi dut
- 207.** Kulturari ezartzen zaion BEZean eragin ahal izateko erabaki nahi dut
- 208.** Gure herriaren etorkizuneko garapena arlo guztietan ahalbidetzen duen ikerketa egitea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 209.** Euskal komunitateak dituen beharrei erantzuten dien ikerketa egin nahi dudalako erabaki nahi dut, berrikuntza alor guztietan ahalbidetuz
- 210.** Gure herria gero eta kultuagoa izan dadin ikerketaren bidulgaioa egitea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 211.** Erabaki nahi dut ikerlariari erantzukizuna eskatu nahi diedalako horretarako nazioarteko mailan erabiltzen diren ebaluaketa sistema egokiak eta malguak ezarriz
- 212.** Quiero decidir porque quiero una educación que preste más atención a la parte emocional del ser humano. Una buena educación emocional en la infancia y adolescencia ayudará a crear una sociedad más empática, solidaria y justa en el futuro.
- 213.** Ikerkuntzan gure helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzeko erabaki nahi dut, beharrezkoak diren azpiegitura teknikoak, beharrezkoak diren ikerlariak, etab. gure beharren arabera erabakitzeke
- 214.** Beste unibertsitate eta ikerketa eredu bat posible delako erabaki nahi dut
- 215.** Hizkuntza, herria, kultura, hiruko horretan gara gu, horien bitartez garelako gu. Kontua da izate horretan ez garela burujabe eta hori horrela izanik oso zaila da tresna, baliabide eta egitura guztiak eskura edukitzea baldin eta erabakitzen ez baldin badugu
- 216.** Herrigintza, nazioagintza, berregintza... berriro egiteko, sendatzeko, osatzeko modu bat da kulturagintza. Euskara, Euskal kultura, euskaldun izatea, euskal herritar izatea aukeran ez dugun gauza bat da eta horregatik aukeratu behar dugu. Aukeratzea beti da erabakitzea baina normalizatua duenak ez du aukeratu beharrik, berez du, ez dauka pentsatu beharrik. Guk hori dena aukeratu beharra daukagu, hizkuntza aukeratu behar dugu goizero, kultura aukeratu behar dugu goizero, ez dator, bila joan behar gara. Horregatik da garrantzitsua erabakitzea

- 217.** Erabakitzeke eskubidea da demokrazia bat are eta demokratikoago egiteko modua, demokrazia ahalik eta zuzenerera iristeko bidea, alegia, erabakia ahalik eta jende gehienak hartu ditzan, ez bakarrik elite politiko batek
- 218.** Erabaki nahi dut erabakiak zabalak, horizontalak izateko. Haurrak, gazteak, helduak, emakumeak, zaharrak, gizonak, bestelako identitateak, bertakoak, bertaratutakoak, klase sozial guztietakoak erabakitzeke
- 219.** Erabakitzeke modua ahalik eta parte hartzaileena izatea nahi dut eta erabaki beharko genukeen guzti hori izan dadila ahalik eta zabalena, ahalik eta gai gehienetan, hasita etxetik eta bukatuta gure herriko erakunde sozial eta politikoetan barrena
- 220.** Zergatik kulturatik-hizkuntzatik erabaki? herri bat garelako, nazio bat garelako, nazio kultural bat garelako baina nazio kultural guztiak politikoak direlako eta geure buruaren kontzientzia dugulako edo izan nahi dugulako
- 221.** Egun kulturari bizi dugun egoera erabat bigarren mailako edo menperakuntzakoa delako. Kultura nagusi baten parte gara, zati gara, azpiko gara, ez gara geure, ez gara burujabe. Hemen erabakitzeak aukera emango liguke kultura eta hizkuntza erdian jartzeko, ez automatikoki, baina aukera hori ekarriko luke politikak bertatik egitea. Izan ginen, garen eta izan nahi dugun horren gainean erabakitzeke
- 222.** Zergatik erabaki? hobeto bizitzeko. Askotan pentsatzen da hobeto bizitzea dela baldintza sozioekonomiko hobekin bizitzea eta hori dela herri egingo gaituena. Baldintza sozioekonomiko horiek, zer daukagun, zenbat daukagun erabakitzeak, subjektu bat eskatzen du, hori ez da airean egiten, hori kolektibo bati, lurralde bati eta bere erabakimenari lotzen zaizkio
- 223.** Autozentratutako politikak egin behar direlako. Euskaraz jakiteko eskubidea dugu baino espainola jakiteko obligazioa dugu. Minusetik abiatzen gara. Ondorengo politika guztiak bertatik abiatzen dira. Legearen muga dugu
- 224.** Hizkuntza politikak egitean bertatik abiatu behar garelako eta behar handiena duenari, aukera gehiago eta baliabide gehiago eman behar dizkiogu berdintasun plano batera iristeko. Hautu pertsonalean baliabide soziolinguistikorik ezean, hanka bat gutxiagoarekin abiatzen gara
- 225.** Hezkuntza politikarien esku soilik uzteko gai garrantzitsuegia delako erabaki nahi dut. Herri batek ezin du orain arteko ordezkariak moduekin jokatu. Herritarrok badugu zeresan zuzena. Zertarako? gizartearekin lotuta dagoen hezkuntza sistema bat eraikitzeke, gizartea eraldatzen duen sistema
- 226.** Hezkuntzaren bitartez ikasle kritikoak, talde lanean arituko direnak nahi ditudalako, horrek geroz gizartean isla zuzena duelako
- 227.** Erabaki nahi dut unibertsitate eredua eraberritzeko eta euskal gizartearen erronkei heltzeko
- 228.** Erabaki nahi dut lanbide heziketaren eta unibertsitatearen prestakuntzen arteko oreka lortzeko
- 229.** Kultura propioa kanpaina zehatzetara ez mugatzeko erabaki nahi dut

- 230.** Benetako herritarra izateko. Herritar osoa izatea, erabakitzeko eskubidearen gauzatze praktikoaren lotuta dago. Herritarra izatea erabakitzea dakar, berarekin dakar erantzukizuna eta konpromisoa
- 231.** Besteek nigandik ez erabakitzeko. Indarrak modu proaktiboan lantzeko. Gizarte bakoitzak bere hezkuntza sortu garatu eta bideratzeko eskubidea osoa duelako.
- 232.** Ikasi egin nahi dudalako erabaki nahi dut. Guk baino gehiago dakitenengandik, hobeto dakitenengatik
- 233.** Euskara delako nire hizkuntza eta euskaraz bizi nahi dudalako. Erabakitzeko aukera izanik, nire nahi hau gauzatzeko tresnak izateko
- 234.** Bertako Kultura ezagutarazteko eta kultura globalizatzailea alboratzeko
- 235.** Euskararen aurka daudenak, gure hizkuntzaren gaietan erabaki ez dezaten
- 236.** Gure hizkuntza babestu eta iraun dezan ezinbestekoa ikusten dut estatu espainoletik irtetzea. Horregatik erabaki nahi dut.
- 237.** Kultura ezberdinen integrazioa errespetatuz, gure kultura zutabe gisara zaintzeko.
- 238.** Hizkuntza politika gure esku izateko. Hizkuntza normalizazioa bermatu eta edonork izan dezan euskararen giltza
- 239.** Gure herriak selekzio propioak eduki ditzan
- 240.** Hedabideek bertako kultura sustatzeko
- 241.** Herritar hezkuntza publikoa nahi dudalako
- 242.** Euskal kultura sustatu eta dagokion lekua emateko, lehentasuna emanaz
- 243.** Inposaketarik ez hezkuntzan guk gurea eraikiz. Euskal kurrikuluma
- 244.** Bertako hezkuntza, bertakoek kudeatzeko
- 245.** Me gustaría decidir para mantener el euskara, la educación y la historia de nuestro pueblo
- 246.** Gure kulturak etorkizun bat izan dezan
- 247.** Para que los recursos destinados al euskara sean decididos en cada territorio
- 248.** Para impulsar la integración en euskara de los inmigrantes
- 249.** Para mejorar la educación: desde 0 años hasta la Universidad. Pública, euskaldun, con visión de país y de futuro. Preparando una ciudadanía activa que construye país
- 250.** Para desarrollar una sociedad basada en valores democráticos

- 251.** Derecho a decidir para influir en Europa y proteger culturas tradicionales
- 252.** Harresiak ez ditudalako maite, Lomce, lege organikoak, gezurak, buenismoak, elkarrekin bizi nahi dudalako baino eskumen osoak edukita. Irakaskuntza publiko deszentralizatua nahi dudalako
- 253.** Zergatik nahi dut erabaki? Hezkuntza publikoa, herri ikastetxeez osatuta egon behar duelako, herri elkartetik gertu
- 254.** Zergatik erabaki? Herri parte hartze aktiboa beharrezkoa delako. Ordezkatzeak gainditu behar ditugu. Erantzukizunarekin lotuta egon behar da parte hartzea.
- 255.** Zergatik erabaki? Gizarte kohesionatzeko. Hezkuntza sare publikoa, sistema justua eta inklusiboa den neurrian egingo da
- 256.** Zergatik erabaki? aukera berdintasuna eta gizarte berdintasun ezari aurre egingo dion hezkuntza nahi dudalako
- 257.** Gure mundu sinbolikoa, unibertso kulturala behar dugulako
- 258.** Zergatik erabaki? Hezkuntza sistema propioa burujabe garenean bakarrik antolatuko dugulako
- 259.** Zergatik erabaki? Irakaskuntza publiko deszentralizatua nahi dudalako
- 260.** Lekututa dauden erabakiak behar ditugu, des-lekututako erabakiak ezin dira onak izan, borondate onez eginda badaude ere. Erabakitzeko eskubideak badu naturaltasun puntu bat, lekuan, lekukoek egiten duten hautuarekin. Hezkuntza sistema propio oso bat eraiki ahalko dugu erabakitzerik badugu, betiere baldintza gabe
- 261.** Esku pilota zein beste kiroletako naziarteko txapelketetan ze herri ordezkatu nahi dugun erabaki nahi dugulako
- 262.** Pilotari izanik, Euskal Herria esku pilotan ordezkatu nahi dudalako.
- 263.** Futbolari izanik, Euskal Herria nazioarteko txapelketetan ordezkatu nahi dudalako
- 264.** Herriko dantzak eta ohiturak bizikidetzarako nahi ditugulako erabaki nahi dut
- 265.** Saskibaloiko jokalaria izanik, Euskal Herria nazioarteko txapelketetan ordezkatu nahi dudalako
- 266.** Surflaria izanik, Euskal Herria nazioarteko txapelketetan ordezkatu nahi dudalako
- 267.** Kirolari izanik, Euskal Herria nazioarteko txapelketetan ordezkatu nahi dudalako
- 268.** Euskal Herriko nazio marka eraiki eta munduan zehar gure herria, gure baloreak eta gure nortasuna ezagutarazteko, munduan lehiatzeko eta leku bat izateko erabaki nahi dut
- 269.** Konfiantzan, balio erantsian eta talentuan oinarritutako prestigiozko Euskal Herriko nazio marka eraiki nahi dudalako erabaki nahi dut

- 270.** Herri proiektu partekatu bat diseinatzeko eta garatzeko erabaki nahi dut
- 271.** Baliabideak izango dituen Euskal Unibertsitate onlinea publiko eta berritzailea eraiki nahi dudalako erabaki nahi dut
- 272.** Euskaraz ikasteko aitzakirik ez dadin egon, laguntzak euskara ikasteko, agian, doakoa
- 273.** Geuk erabakitzekeo zein historia erakutsi ondorengoei
- 274.** Euskara Hizkuntza ofiziala izatea nahi dugulako
- 275.** Euskal eskola bakarra, euskalduna eta hemen erabakitakoa nahi dudalako
- 276.** EITB eta beste hedabide publiko plural eta euskaldun bat nahi dudalako
- 277.** Gure arbasoek utzitako kultur ondarea eta guk utziko duguna hemen gestionatzeko eta babes-
teko
- 278.** Kiroletako euskal selekzioak ofizialak izan daitezen
- 279.** Gure euskarazko komunikabide propioak indartzeko
- 280.** Pilotan Euskal Herria ordezkatu nahi dugulako
- 281.** Gure herrian oinarritutako euskal kurrikuluma nahi dugulako
- 282.** Gure herriaren historia ikasi nahi dugulako, ez inposatutakoa
- 283.** Nondik gatozen baino, zer garen eta zer izan nahi dugun erabaki nahi dugulako
- 284.** Jai parte hartzaile eta denontzako gozamenerako gune askeak izateko
- 285.** Artean eta kulturaren emakume sortzeileen presentzia eta sorkuntza feminista bermatzeko
- 286.** Medikuek euskalduna nahi dudalako erabaki nahi dut
- 287.** Hezkuntza sistema eta metodologia erabakitzekeo
- 288.** Hezkuntza herritarra eta parte hartzailea eraikitzekeo. Eta euskalduna!
- 289.** Haur eta gazteen erritmoak eta nahiak errespetatuko dituen hezkuntza nahi dudalako. Bizitza erdigunean jarriko duena eta ez produkzio ekonomikoa
- 290.** Umetatik jolasean erakusteko, irabazteari garrantzia kenduta
- 291.** Euskal komunikabideen aniztasun handiagoa izateko. Herritik eta herriarentzako izan daitezen
- 292.** Euskaldunak garelako, ez baskoak
- 293.** Eskola publikoa besterik ez dudalako nahi erabaki nahi dut

- 294.** Euskaraz bizi nahi dudalako lantegian, administrazioan eta denean
- 295.** Bizitzako esparru orotan euskara izan dadin lehen hizkuntza erabaki nahi dut
- 296.** Benetako euskalduntzea eta euskaraz bizi eta ikasi ahal izateko
- 297.** Zineman euskara bermatzeko
- 298.** Europako hizkuntza zaharrenak iraun behar duelako
- 299.** Euskara bihotzean eraman dezagun bitartekoak nahi ditudalako
- 300.** Erabaki nahi dut musa nazioarteko mahai jokua izan dadin eta Euskal Herriak bere ordezkaritza propioa izateko
- 301.** Erabaki nahi dut tutea nazioarteko mahai jokoa izan dadin eta Euskal Herriak bere ordezkaritza propioa izateko
- 302.** Nire herriak bere hizkuntz eskubide osoak izan dagiezala gure dudalako erabaki nahi dot
- 303.** Euskal Herria, euskararen herria dalako, eta euskerak marko propioa behar duelako erderaren morrontzatik irten eta nazio mailako hizkuntza politikak garatzeko
- 304.** Euskal Herriko hezkuntza sistema bertako komunitateak diseinatu dezan. Ez dogu Madril edo Pariseko bulego batean erabakitzerik nahi
- 305.** Kirolaren esparruan erabakitzeko eskubidea izatea oso garrantzitsua dalako Euskal Selektzioek Euskal Herria nazioarteko txapelketatan ordezkatu ditzaten
- 306.** Euskal pilotaren kasuan, lehiaketatan ezin dogulako gure herria ordezkatu, Estatuak ez digu nazioartean lehiatzen uzten. Gurea sentitzen ez dogun nazio bat ordezkatzera behartuta gauz
- 307.** Erabaki nahi dut babestu beharreko ondarea dugulako euskara eta, orain arte ikusi denez, askatasunez erabaki ezinak eta kontu hauetan esku-hartzerik ez izateak bere garapenean eta finantzaz behar adina ez aurreratzera garamatzalako
- 308.** Gure hizkuntza tresna baztertzaileztat du askok, gizartea erdibitzen duen arrazoitzat eta, ondorioz, presentzia kendu nahi dio gure eskoletatik. Baina ezin da ukatu errealitatea oso bestelakoa dela eta gure gizartean euskara dela baztertuta dagoena. Erabaki nahi dut erabakiaren bidez ahalmena izango genukeelako euskara baztertu eta gutxietako hartzen diren neurriei aurre egin ahal izateko
- 309.** Quiero decidir para que el euskera sea oficial y se le trate, al igual que a la cultura vasca, con la importancia que merece
- 310.** Erabaki nahi dut euskara jartzeko erabakitzen denaren muinean; hori (izan behar) da subjektuaren oinarria. Erabilera bermatu egin behar da, eta euskaldunok bizi dugun estres linguistikoari irtenbidea eman. Gainera, euskaldun guztion arteko harremanak eraikitzeke lanabesa izan daiteke (zazpi probintzien artekoak, administrazioa administrazio). Honetarako, batzuen esanetan, diskriminazio positiboa egin behar da; besteen esanetan, ordea, indarrak orekatu, gaur egun gehiago sustatzen baita gaztelania euskara baino

- 311.** Erabaki nahi dugu euskal hezkuntza sistema bere arlo guztietan euskaldunen esku soilik egotea nahi dugulako, bai bere antolaketari zein eskoletan eman behar diren gaiei dagokienez
- 312.** Erabaki nahi dut hezkuntzak eskubide guztiak izateko gure hezkuntza eredua diseinatzeko
- 313.** Erabaki nahi dugu Lanbide Hezkuntzaren espezialitate eta formakuntza zikloak geuk erabakitzeko nahi dugulako, gure produkzio ehunaren beharren, etorkizunerako ikusten diren aukeren eta ikasleen nahien arabera
- 314.** Erabaki nahi dugu ez dugulako nahi Madril izatea gure Unibertsitateko eskola lekuen eskaintza erabakitzen duena, baizik eta guk egitea geure beharren arabera
- 315.** Erabaki nahi dugu gure unibertsitateetan geure gizarteak beharrezkoen dituen ikasketak jarri ahal izatea nahi dugulako, herrialde modura aurreratzen jarraitzeko eta gainean izango ditugun etorkizuneko erronka hain aldakorrei aurre egiteko
- 316.** Erabaki nahi dut erabakiak hartzeko ahalmenak hezkuntza publiko sendo eta aberasgarria eraikitzeko aukera emango ligukeelako, behar duen bultzada emanaz. Izan ere, gero eta oztopo gehiago jartzen zaizkio estatu mailan hartzen diren erabaki eta neurrien erruz eta horrek, duda barik, modu zuzenean eragiten digu
- 317.** Queremos decidir la política lingüística y educativa diferente a la que nos vemos obligados a implementar. Ni peor, ni mejor, pero sí diferente, potenciando aspectos de nuestra identidad que mejoren las relaciones con otras culturas e identidades desde la colaboración y respeto a la diversidad
- 318.** Hezkuntza da gizartearen aldaketa bermatzeko tresna indartsuenetako bat, askotan gutxietsi egiten dugun arren. Gizartearen beraren oinarri dela esango nuke eta, ondorioz, ezarritako hezkuntza sistemaren araberakoa izango da gizarte horrek jasoko dituen balore, ezagutza multzo eta, zergatik ez, bizitza ulertzeko modu zentzu handi batean. Beraz, zergatik utzi gure gizartearen arrotz egiten zaienei erabakiak hartzen? Zergatik utzi gure benetako beharrak eta errealitatea ulertzen ez dutenei aldaketak ezartzen? Horregatik erabaki nahi dut
- 319.** Erabaki nahi dut hezkuntzako profesionalen baldintza duinak bermatzeko, gizartean duten irudiari buelta eman eta jasotzen duten formakuntza kalitatea hobetzeko. Hezkuntza esparruko profesionalak babesten ez baditugu, gure gizartearen hoberako aldaketa egiteko zutabe garrantzitsu bat galduko baitugu
- 320.** Quiero decidir para conseguir una universidad vasca en euskera en la que todas las cuestiones que le atañen sean decididas por ella
- 321.** Selektibitate frogan euskara ingelesaren pare jartzen da. Euskarak beste garrantzi bat izateko eta hemen kudeatzeko nahi dut erabakitzeko eskubidea
- 322.** Erabaki nahi dut gure euskal unibertsitatea edukitzeko, ez espainola
- 323.** Erabaki nahi dut gure hezkuntza kurrikuluma egiteko
- 324.** Erabaki nahi dut unibertsitatean sartzeko probak guk erabakitzeko

- 325.** Erabaki nahi dut EITB herri eraikuntza ikuspegiarekin antolatzeko
- 326.** Erabaki nahi dut hizkuntza eta kultura aniztasuna babesten duen Europa lortzeko
- 327.** Erabaki nahi dut euskara hizkuntza koofiziala izan dadin Europar Batasuneko erakundeetan
- 328.** Quiero decidir como ciudadana navarra para lograr el reconocimiento y la defensa por parte de las instituciones europeas de la diversidad cultural y lingüística europea
- 329.** Erabaki nahi dut euskal herritar gisa euskal kirolak eta euskal kulturaren adierazpenak Europan ezagutza eta babesa izan dezaten
- 330.** Porque no quiero que nuestros hijos e hijas vivan bajo un modelo cultural importado y dirigido desde fuera sino propio y basado en los valores y las tradiciones de nuestro pueblo... ¡Yo también quiero decidir!
- 331.** Euskal herritar gisa erabaki nahi dut Kultura baliosten dakien Europa nahi dudalako. Bere ondareaz gain, Europa osoko idazle, poeta, musikari, artista...disidenteak babesten dakiena
- 332.** Quiero decidir para que en Europa existan políticas comunes que faciliten la gestión del patrimonio cultural europeo
- 333.** Erabaki nahi dut euskal herritar gisa Europak kirola sustatu dezan osasun politikan, hezkuntza politikan eta Europako herrien arteko harremanetan.
- 334.** Erabaki nahi dugu komunikabideek egin ditzaketan eskaintzetan eragina izateko ahalmena behar dugulako, komunikabideek ere euskararen erabileraren normalizazioaren alde lan egin dezaten
- 335.** Erabaki nahi dut hedabideetan subjektu propioa izateko, eta ez etengabe beste erreferente batzuen mendeko
- 336.** Erabaki nahi dut euskal merkatuan lan egin nahi duten kultura-ekoizleengan eragin eta erabaki gehiago izan ahal izango dugulako, hauek ere euskararen normalizazioaren aldeko eragileak izan daitezten eta guztion artean gaur egun hain zaila gertatzen den elebitasunaren diglosia gainditzeko
- 337.** Erabaki nahi dut gure selekzioen ofizialtasuna lortzeko, gure nazioak nazioartean ere lehiatu dezan
- 338.** Erabaki nahi dut gu ere Eurovisionen ordezkatuta egoteko (Goazen!)
- 339.** Erabaki nahi dut euskarazko kulturgintza duina izateko modu bakarra delako. Prekarizazioa albo batera uzteko neurriak hartu behar dira, gure kulturgintzak bazterreko, beste inoren mendeko izateari utziko badio. Geurea bezalako kultura gutxitu batek ezin dio aurre egin etorkizunari, esaterako, euskarazko egunkari bakarra beti kinka larrian dagoela edo idazlerik onenak beste lan batzuk egiten
- 340.** Hezkuntzan geure bidea markatzeko erabaki nahi dut
- 341.** Euskal eskola publiko komunitarioa ardatz izango duen hezkuntza sistema propioa egituratzeko

- 342.** Euskal kultura gure herrian ez dadin bigarren mailakoa izan erabaki nahi dut
- 343.** Gure hizkuntza indartzeko eta geurea egin dezagun
- 344.** Euskerari indarra emateko
- 345.** Euskera erabili nahi dudalako eguneroko ekintzetan
- 346.** Gure hizkuntzarekin bizi ahal izateko bizitzako sail guztietan (lana, osasuna...
- 347.** Euskaraz bizi nahi dudalako
- 348.** Euskal kulturaren murgiltze sakonagoa nahi dudalako herritarren artean
- 349.** Kultura denontzat izatea nahi dudalako
- 350.** Erabaki nahi dut gure hezkuntza daukagulako, aberatsa gainera
- 351.** Para que nadie, excepto nosotros mismos, decidamos cómo debemos conservar, enseñar y promover nuestra cultura
- 352.** Gure kultura, hizkuntza... ez galtzeko
- 353.** Euskal kultura eta hezkuntza maite ditugulako erabaki nahi dut
- 354.** Quiero decidir sobre el estatuto jurídico del euskera: para garantizar que su conocimiento y uso además de un derecho también sea un deber, y para que sea 100% oficial en todos aquellos territorios en los que se hable.
- 355.** Gure kalifikazio-sistema edukitzeko, eta ez Madrilin inposatutako sistema txarra
- 356.** Gure kultura zaindu eta babesteko
- 357.** Euskalduna naizelako
- 358.** Gure nortasuna ez galtzeko, gure historia, gure hizkuntza indartu ahal izateko
- 359.** Hezkuntza sistema eraldatu nahi dugulako
- 360.** Gure hizkuntza aurrera ateratzeko
- 361.** Gure hizkuntzaren egoera hobetu nahi dugulako
- 362.** Para incentivar la conservación y el conocimiento de nuestra historia
- 363.** Berdintasunean oinarritzen den hezkuntza-eredu bat izateko
- 364.** Jai euskaldunak nahi ditugulako

- 365.** Gure hizkuntzari buruz guk erabaki behar dugulako; non, norekin eta noraino bultzatu behar dugun. Ez dezala erabaki ezagutzen ez duenak
- 366.** Ohiturak, kirolak, kantar hizkuntza... gureak ditugulako erabaki nahi dut
- 367.** Herri euskalduna izateko kultura eta euskal tradizioak zaintzeko
- 368.** Gure kirolak eta kirolariak munduan zabaltzeko
- 369.** Para que se respeten nuestras tradiciones y se mejoren en el grado que aquí decidamos la educación, apoyos a la cultura, tradiciones, lucha, etc.
- 370.** Hezkuntza-eredu propio bat izateko, ez inposatua
- 371.** Gure ohiturak babestu eta etorkizun baterako bermatzeko
- 372.** Kalitatezko irakaskuntza publiko eta euskalduna bermatuko duen estatu bat nahi dudalako... erabaki nahi dut!
- 373.** Hezkuntza sistema zeharkatzen duten genero estereotipo eta emakumeen inbisibilizazioarekin bukatzeko, hezkidetzat oinarri duen hezkuntza eredu feminista sortzeko
- 374.** Euskal Herriko kirolarien (neska eta mutilen) selekzioa nahi dugulako
- 375.** Kultur aniztasunak aberastu egiten gaituelako
- 376.** Legeak hizkuntza gutxituei errekonozimendu ofiziala eta estatus ofiziala emateko erabaki nahi dut
- 377.** Euskara hizkuntza ofiziala eta nagusiaren aurrean lehentasuna izatea nahi dudalako, hizkuntza gutxitua delako hainbat eremutan
- 378.** Euskara nagusi den eremuetan eta euskararen arnasmuneetan, instituzioek eta administrazioek euskara babesteko neurri bereziak hartzea eta horiek bete daitezten baliabideak jartzea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 379.** Euskal herritar orok administrazioan euskaraz lan egiteko duen eskubidea %100 bermatzea eta hori bete dadin bitartekoak jartzea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 380.** Langileek lantokian euskaraz egiteko eskubidea bermatuta egon dadin erabaki nahi dut
- 381.** Administrazioak martxan jartzen dituen publizitate kanpainetan euskararen erabilera jatorra eta egokia bermatuta egon dadin erabaki nahi dut
- 382.** Administrazioak azpikontratatzeko dituen zerbitzuetan euskararen erabilera bermatuta egotea nahi dudalako
- 383.** Administrazioaren ekitaldi publikoetan euskara lehenestea nahi dut, eta ez dadin izan orain gertatzen den zenbait kasutan bezala agurra edo ongietorria emateko hizkuntza

- 384.** Nazioarteko egitasmo eta ekitaldietan euskararen presentzia egotea, areagotzea eta bermatzea nahi dut, Euskal Herriak duen patrimonio garrantzitsuena munduratzeko eta balioan jartzeko
- 385.** Euskaraz sortzen duten sortzaileei diru-laguntza gehiago ematea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 386.** Eskolaz kanpoko jarduera guztiak euskaraz eskuragarri egotea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 387.** Etorkinen artean euskarak duen balioa eta ikasteak dituen onurak zabaltzeko plangintzak nahi ditudalako erabaki nahi dut
- 388.** Europan dauden hizkuntza gutxiagotuei lehentasunezko trataera ematea nahi dut, horien artean euskarari, noski
- 389.** Erakunde eta administrazio publikoetako goi karguetan dauden ordezkari guztiek euskara menperatzea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 390.** Salaketak euskaraz jartzeko aukera bermatua izan nahi dut ertzain etxe, udaltzaingo eta epaitegietan
- 391.** Hizkuntz politika aldatu eta egoki bat nahi dugulako
- 392.** Hezkuntza sistemaren aldaketa nahi dugulako, eskola euskalduna nahi dugulako
- 393.** Interkulturalitatean sakontzeko, getorik sortuko ez dituen harrera politikak nahi ditugulako

ONGIZATEA/BIENESTAR

- 394.** Lana eta familiaren arteko kontziliazioa bermatuko duen gizartea nahi dudalako
- 395.** Erabaki nahi dut euskal finantza erakunde nagusien etorkizuna euskal gizartearen eta euskal ekonomiaren mesedetan egoteko
- 396.** Erabaki nahi dut euskal finantza erakundeen antolaketa eta araubidea euskal erakundeek ezartzeko
- 397.** Diru publikoaren inbertsioaren errentagarritasun soziala erabakitzeko eskubidea nahi dut
- 398.** Hemen erabakitzeko gure lan-baldintzak
- 399.** Eredu sozial justuagoa eta gure baldintzetara egokitua nahi dudalako
- 400.** Langile estatutu propioa nahi eta merezi dugulako
- 401.** Nagusientzako pentsio duinak bermatu ahal izateko
- 402.** Euskal Banku Zentrala, IBEX 35aren parekoa eta burtsa izateko erabaki nahi dut

- 403.** Erabaki nahi dut Euskal finantza erakundeen izaera euskal erakundeen erabakia izan dadin Europako esparruaren baitan, baina Espainia eta Frantziako estatuek ezarritako mugarik gabe
- 404.** Euskal Herriko baldintzetara egokitutako pentsio eta laguntza sozialak bermatu ahal izateko
- 405.** Porque no podemos decidir cuántas profesoras y profesores queremos, cuántas médicos o enfermeros y enfermeras necesitamos porque, aunque sean necesarios para garantizar la calidad de los servicios públicos y dispongamos de recursos para ello hay una ley no decidida aquí que establece las reglas de gasto y las tasas de reposición
- 406.** Porque quiero una jubilación digna, que no me obligue a complementar las prestaciones públicas con planes de previsión privados al alcance sólo de las personas que tienen capacidad de ahorro
- 407.** Gutxiengoa bermatzeko gizarte-talde ezberdinek bizi duina izan ahal izateko: langabeak, adinduak, langileak, etorkinak
- 408.** Euskaldun guztiontzako zerbitzu publiko duinak bermatu nahi ditudalako
- 409.** Gure pentsioak hemen, Euskal Herrian, erabakitzeko. Horretarako gure dot erabakitzeko esku-bidea
- 410.** Por nuestro estado de bienestar, por nuestra cultura, por nuestra tierra, por nuestro pensamiento. Porque si nos dejaran decidir podríamos hacer mejor las cosas para nuestro pueblo, ya que tenemos economía, decisión y muchísimas ganas
- 411.** Gure pentsio kutxa Euskal Herrian kudeatzeko eta denontzat pentsio duinak lortzeko
- 412.** Unas pensiones dignas solo se pueden garantizar desde un pueblo que pueda decidir... si no ya sabemos dónde van nuestras pensiones... al pago de la deuda de los bancos. ¡Yo también quiero decidir!
- 413.** Euskal herritar ororen ongizatea bermatuko duen Euskal Errepublikan bizi nahi dudalako erabaki nahi dut!
- 414.** Diru publikoaren kontrol neutroa izateko, pertsona independenteek kontrolatzeko
- 415.** Pentsio duinak nahi ditudalako eta jubilazio adina hemen erabakitzea nahi dudalako
- 416.** Porque los trabajadores y trabajadoras queremos formar parte de todas las decisiones que afectan a nuestras vidas... ¡nosotros queremos decidir!
- 417.** Langileen estatutuaren inguruan erabaki nahi dut, gero eta nabarmenagoa den lan-prekarietateari aurre egiteko eta guretzat eta gure ondorengoentzat lan baldintza duinak bermatzeko
- 418.** Erabaki nahi dut lan harremanak erabakitzeko
- 419.** Pertsonak erdigunean jarriko dituen ekonomia eredua eraiki nahi dudalako
- 420.** Lan baldintzak guk ezartzeko, murrizketarik gabe

- 421.** Para gestionar la seguridad social
- 422.** Pertsona guztiak bizi baldintza duina izan behar dutelako; bere lana, soldata ziurtatuta eta bizi kalitate ona eta disfrutatzeko denbora
- 423.** Ongizatea denon eskubidea delako erabaki nahi dut
- 424.** Politika ekonomikoak inondik inosatuta etor ez daitezen erabaki nahi dut
- 425.** Gure errekurso finantzieroak kudeatu nahi ditudalako
- 426.** Pentsioen kutxa hemen kudeatua izatea nahi dudalako
- 427.** Gure errekurso finantziero publikoak nola kudeatu erabaki nahi dugulako
- 428.** Garapena eta berrikuntza alorrak ekonomiaren motorra izango diren eredu batera joan nahi dudalako
- 429.** Euskal Herriko eredu sozioekonomikoa eraiki eta garatu ahal izateko erabaki nahi dut
- 430.** Porque queremos decidir nosotros y nosotras, y solo nosotros y nosotras, sobre las condiciones de trabajo y nuestro modelo de empresa
- 431.** Langileen parte hartze instituzionalerako bitarteko eraginkorrak martxan jartzeko, eredu kontsultiboa gaindituz
- 432.** Euskal enpresa-sarea edo ehuna hain berezia izanda, hobeto babestu eta garatuko litzatekeelako geuk erabakiko bagenitu, askatasun osoz, horren inguruko alde guztiak (sortzeko pizgarriak, babes fiskala, birfinantzaketa-akordioen baldintzak krisialdi kasuetan...), nazioarteko bokazioa bazter utzi gabe, baina bertotik erabakita horren kudeaketa.
- 433.** Porque quiero vivir mejor y darles a mis hijos e hijas un futuro justo, solidario, sin precariedad y con oportunidades... ¡yo quiero decidir!
- 434.** Hemen bizi garelako lan marko propio bat behar dugu. Zertarako? Lan harremanak bermatuak izateko eta eskubideak eskuratzeko. Erabaki nahi dut!
- 435.** Oinarrizko beharrak beteta izan ditzagun tresnak gure esku behar ditugulako
- 436.** Askatasun sindikalak blindatzeko
- 437.** Quiero decidir para que todas las personas tengan derecho a una vivienda digna y adecuada
- 438.** Erabaki nahi dut euskal lurraldeetako langileentzako lan-aukera esparrua sor dadin muga administratiboak gaindituz
- 439.** Lan baldintza duinak izateko

- 440.** Quiero decidir como ciudadana de Euskal Herria para desarrollar a nivel europeo la Responsabilidad Social Empresarial como mecanismo por el que las empresas puedan devolver a la sociedad los que ésta les ha aportado
- 441.** Oinarrizko errenta babestu eta unibertsalizatzeko
- 442.** Kalitatezko lanpostuak nahi ditugulako, segurtasunez lan egin nahi dugulako eta baldintza prekarioak baztertu nahi ditugulako... gazteok ere erabaki nahi dugu!
- 443.** Erabaki nahi dut benetako industria-politika bat definitu dadin Europar Batasunean, euskal industriak lehiatzeko baldintza egokiak izan ditzaten eta kalitatezko enplegua bermatzeko
- 444.** Erabaki nahi dut euskal industriak erronka globalei aurre egiteko (robotika, big data, aurrerapen teknologikoak eta eraldaketa ekonomikoak) moduko baldintzak eta baliabideak sor daitezen Europa mailan.
- 445.** Para que suban las pensiones y no nos roben más
- 446.** Prekarizazio eta pobretze politiken aurrean, lan-baldintza egokiak (soldata, eskubideak...) izateko
- 447.** Erabaki nahi dut garapen aurreratu baten aldeko kultura lantzeko
- 448.** Euskal Herriko ongizate garatzeko (bai ekonomikoki bai kulturalki) ahalmen osoa behar dugulako
- 449.** Eredu ekonomikoari buruz erabaki nahi dut, menpekotasunean oinarrituko ez den eredu alternatibo, parte hartzaile eta herritarra sortzeko
- 450.** Pentsio duinak lortzeko. Gure nagusiak zaintzeko, egin duten lan guztien ondoren euren beharrak asetzeko
- 451.** Queremos decidir porque queremos sobrevivir como pueblo, con calidad de vida
- 452.** Osasun publikoa gure esku egon behar delako
- 453.** Euskal ongizate sistema propioa eraiki nahi dudalako erabaki nahi dut
- 454.** Gazteentzako etxebizitzarako laguntzak lortzeko
- 455.** Erabaki nahi dut berrikuntza teknologikoaren erronkari heltzeko
- 456.** Gure osasun sistemari buruzko kontuak geuk erabakitzeko
- 457.** Erabaki nahi dut gure herriaren ekoizpen gaitasuna garatzeko
- 458.** Erabaki nahi dut ekoizpen garapenaren erronkari heltzeko
- 459.** Politika fiskala guk bertan erabaki nahi dugulako (BEZa)

- 460.** Quiero decidir para generar un espacio de oportunidad socio-laboral entre los territorios de Euskal Herria, superando los límites y obstáculos administrativos actuales
- 461.** Quiero decidir sobre nuestro sistema sanitario para que garantice el derecho a la salud de tod@s, revirtiendo la tendencia externalizadora y construyendo un modelo público sólido y de calidad
- 462.** Etorkizunari begira aukera gehiago izateko, gure ikasketa eta formazioagaz bat datorren lan duin bat lortu ahal izateko atzerrira joan barik eta etxebizitza bat lortu eta independizatzeko aukera eukiteko, erabakitzeke eskubidea
- 463.** Erabaki nahi dut kanpo harremanen erronkei heltzeko (merkataritza politika propioa, euskal enpresen kokapena munduan...)
- 464.** Osasunak jendeartearen ongizatea izan behar du helburu, errekurts enpresaren etekinak etbar baztertuta
- 465.** Para mejorar las condiciones laborales: Sistema propio de relaciones laborales / Negociación colectiva propia / Condiciones mínimas de ingresos para una vida digna de todos y todas
- 466.** Erabaki nahi dut jarduera ekonomikoan parte hartze publikoa erabakitzeke
- 467.** Para gestionar las pensiones
- 468.** Zergak hobeto kontrolatzeko eta diruaren banaketa orekatuagoa izateke
- 469.** Administrazio publikoko langileentzako oinarritzko estatutoa erabakitzeke, kanpoko inposaketarik ez baitugu nahi
- 470.** Quiero decidir porque cualquier avance en el modelo de bienestar social debe estar precedido y acompañado de la participación continua del tejido social, sindical y empresarial
- 471.** Bertan, nire dirua hobeto eta kontrolatuago erabiltzeke gauza sozialetan
- 472.** Erabaki nahi dut finantza sistemaren erronkei heltzeko
- 473.** Ekoizpen baliabideen kolektibizazioa lortzeko
- 474.** Erabaki nahi dut tresnak izateke zientzia eta teknologia aurreratuaren aldeko kultura lantzeko
- 475.** Para tener pensiones dignas
- 476.** Quiero decidir porque la profundización en soluciones reales para la sociedad vasca pasa por disponer de capacidad de decisión en el diseño de las relaciones laborales, las políticas fiscales y del modelo público de seguridad social.
- 477.** Para tener una vida digna
- 478.** Lan duina bermatuko duen Euskal Herriko langileen estatutua eratzeko, lan harremanetarako esparru propioa egituratuz

- 479.** Enplegutik harago, sozialki beharrezkoa den lan guztiaren aitortza egiteko
- 480.** Lan harremanen estatalizazioari aurre egiteko. Euskal langilerik ez dugu egon nahi estatuko hitzarmenen menpe
- 481.** Langileen prekarizazioa eta atomizazioa eragiten duten praktika enpresarialak eragozteko
- 482.** Langileak ahaldunduko dituen negoziazio kolektiborako legeak ezartzeko, patronalaren aldeba-kartasunarekin amaituz
- 483.** Quiero decidir como ciudadano navarro para garantizar a nivel europeo condiciones adecuadas para un trabajo de calidad
- 484.** Quiero decidir como ciudadana de Euskal Herria para fomentar a nivel europeo la economía so-cial y los modelos de trabajo asociado como el cooperativismo, a través de los cuales lograr un mejor posicionamiento en la economía global
- 485.** Erabaki nahi dut euskal herritar gisa gazteak atzerrian ikasteko eta lan egiteko Europako pro-gramek euskal lurraldeetara itzultzeko politikak jaso ditzaten
- 486.** Etxeko langileen, autonomoen, praktketan nahiz bekadun direnaren eskubideak bermatzeko erabaki nahi dut
- 487.** Lan eremuan gertatzen den diskriminazio ororen kontra borrokatu eta aniztasuna bermatzeko (aniztasun funtzionala, orientazio sexuala, jatorria)
- 488.** Para que el conjunto de trabajadoras y trabajadoras de Euskal Herria nos dotemos de un marco propio de relaciones laborales, que nos dote de nuestra propia normativa sin dependencias es-tatales y que nos posibilite un entorno laboral en dignidad
- 489.** Bizi baldintza onak dituen gizarte batean bizi nahi dudalako, eta horretarako erabakitze eskubi-dea ezinbestekoa da
- 490.** Subiranotasun ekonomikoa eduki nahi dudalako. Herri solidarioago batean bizi nahi dudalako. Herri independente batean bizi nahi dudalako. Nik erabaki nahi dut
- 491.** Erabaki nahi dut herritarron erabakiaren bidez bermatzeko ordezkari politikoek gizartean ezgai-tasunen bat sufritzen dutenen alde lan egiten dutela
- 492.** Ezgaitasunen bat izanik, berdintasunezko baldintzak lortu nahi ditudalako lan esparruan erabaki nahi dut
- 493.** Ezgaitasunen gaitetik, nire lan egiteko gaitasuna erakusteko moduko lana eta lan baldintzak nahi ditudalako erabaki nahi dut
- 494.** Lan eremuan diskriminaziorik jaso nahi ez ditudalako etorkina naizelako
- 495.** Lan eremuan diskriminaziorik jaso nahi ez dudalako ljituen herrikoa naizelako
- 496.** Etorkina izanik, lan duinak eta integratzaileak lortu nahi ditudalako

- 497.** Para repartir mejor nuestros recursos
- 498.** Tenemos el derecho y la necesidad de gestionar nuestros intereses y tenemos la necesidad y el derecho a tener un sistema propio de pensiones
- 499.** Quiero decidir porque el sistema de pensiones actual no es sostenible. Un sistema vasco podría ser sostenible
- 500.** Gure lanen etekinak guk erabaki behar dugulako non, nork eta nola antolatu
- 501.** Enpresa eredia behetik gorakoa izate eta informatizazioa guztiontzat izatea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 502.** Nik ez dudalako nahi Euskal Herriarentzat espainiarren giza eredia, beti diruaren oinarrian, eta lapur eta ustelkeriz beteta
- 503.** Quiero decidir para que podamos decidir sobre los convenios laborales que nos afecten
- 504.** Erabaki nahi dut lan arloan eskubideak galduz joan garelako, kendu egin dizkigutelako aukerarik barik
- 505.** Erabaki nahi dut gure herriaren ekoizpen gaitasuna garatzeko
- 506.** Erabaki nahi dut kanpo harremanen erronkei heltzeko (merkataritza politika propioa, euskal enpresen kokapena munduan...)
- 507.** Erabaki nahi dut finantza sistemaren erronkei heltzeko
- 508.** Erabaki nahi dut moneta politikaren erronkei heltzeko
- 509.** Erabaki nahi du lan harremanen eta enpresa ereduaren erronkei heltzeko
- 510.** Erabaki nahi dut moneta politikan euskal erakundeek ahalik eta eginkizun gehien izateko
- 511.** Erabaki nahi dut turismo eredu propioa lantzeko
- 512.** Erabaki nahi dut turismo ereduak ez dezan pobrezia ekarri eta langileen kualifikazio profesionalaren galera
- 513.** Erabaki nahi dut turismo eredia lagungarri izan dadin euskal garapen eredu industrial aurreratu bat lortzeko
- 514.** Osasun baldintzak denontzat berdinak izatea nahi dudalako erabaki nahi dut
- 515.** Erabaki nahi dut azpiegitura lan handietan herritarron iritzia aintzat har dezaten erakundeek
- 516.** Erabaki nahi dut Abiadura Handiko trenaren azpiegitura Europarekin lotu dadin
- 517.** Erabaki nahi dut tren sare eraginkor, jasangarri eta soziala izateko

- 518.** Erabaki nahi dut Abiadura Handiko trenaren azpiegiturak bidaiariez gain salgaiak garraiatzeko balio dezan
- 519.** Erabaki nahi dut politika neoliberalen aurrean euskal eredu lantzeko
- 520.** Erabaki nahi dut herritarron erabakiaren bidez bermatzeko ordezkari politikoez herritarren interesen mesedetan lan egiten dutela eta ez enpresa handi eta egitura oligarkikoen alde
- 521.** Erabaki nahi dut herritarron erabakiaren bidez bermatzeko ordezkari politikoez pentsiodunen alde lan egiten dutela
- 522.** Erabaki nahi dut garapen eredu aurreratu batean lan kualifikatuak sor daitezzen industria eta zerbitzu sektoreetan
- 523.** Erabaki nahi dut ekoizpen garapenaren erronkari heltzeko
- 524.** Quiero decidir porque se están incumpliendo artículos del Estatuto de Autonomía como es el derecho a la gestión del régimen económico de la seguridad social y el Gobierno del estado no permite ni tan siquiera hablar sobre un derecho que está previsto en el ordenamiento jurídico constitucional
- 525.** Gure herriko gizarte jarduna eta ekonomia jarduna uztartu behar ditugulako
- 526.** Euskal Herriaren ezaugarriei begiratuta ikuspegi ekonomiko batetik, industrian aurreratua dauden eskualdeekin edo estatu txikiekin alderatu behar dugulako gure burua, ez Espainiarekin edota Europar Batasuneko estatu handiekin
- 527.** Porque el sistema de pensiones actual es insostenible: hay grandes bolsas de fraude que no se reprimen y se acometen reformas que recortan derechos como subir la edad de jubilación de 65 a 67, desvincular el incremento de las pensiones del IPC- lo que significa que las personas pensionistas cuya pensión ha crecido un 0,25% ya están perdiendo la diferencia entre el 1,2% (IPC actual) y el 0,25%- y el factor de sostenibilidad que vincula el crecimiento de la pensión a las expectativas de vida
- 528.** Quiero decidir a favor de un estado vasco que garantice calidad de vida para todas las personas
- 529.** En el ámbito de las rentas quiero decidir para tener un marco de relaciones laborales que recupere estándares aceptables de calidad y seguridad. Complementar con inversión pública, mientras tanto, a quienes no lo logren, a través de una renta suficiente
- 530.** En el ámbito de la industria quiero decidir para lograr una mayor implicación de las Instituciones en la Política Industrial, en las políticas fiscales (reduciendo las desigualdades), en I+D+i, en formación profesional y continua...
- 531.** Quiero decidir porque en 2019 todos los pensionistas van a sufrir un recorte lineal de su pensión del 20%
- 532.** Tokiko garapenerako euskal politika bat behar dugulako erabaki nahi dut, egun indarrean dauden prozesuak garatu eta berriak bultzatzeko. Modu horretan jarduera ekonomikoaren gehiegizko kontzentrazioan eragiteko gaitasuna izango genuke

- 533.** Balio erantsian – eta ez lan kostuak gutxiagotzen- oinarritutako eredu produktiboa berreskuratzeko erabaki nahi dut
- 534.** Energiataz hitz egiten, zer energia mota erabili nahi dogun erabaki gura dogu; Betikoak (petroleoa, ikatza...) ala energi berriztagarriak
- 535.** Pertsonataz hitz egiten, lan hitzarmen eta konbenioak hemen erabaki nahi izatea gure dogu
- 536.** Industria motak (estruktura, zer arlo indartu, norantza bideratu), bertan erabaki gure doguz
- 537.** En el ámbito del empleo quiero poder decidir: La regulación laboral (salarios mínimos, contratación, negociación colectiva,...), la normativa de las OPEs, la jornada laboral, los tiempos de trabajo...
- 538.** Arrantza munduan geuk izan gure dogu zuzenean Europagaz berba egiteko kapaz. Bardin esne kuota-gaz, etab.
- 539.** Gazteok soldata duinak edukitzeko erabaki nahi dut
- 540.** Jubilazioa 67 urtetan jarri dutelako erabaki nahi dut. Erabaki horri zer ekarpen egin diogu herriarrok?, zenbat hausnartu da erabaki horren inguruan?. Bete behar dela barneratu dugu, horrela izan beharko balitz bezala, aukera gehiagorik egongo ez balitz bezala
- 541.** Porque quiero poder decidir sin limitación alguna sobre las condiciones laborales (salarios, concertación colectiva , jornadas etc.)
- 542.** Porque quiero poder decidir sin limitación alguna en favor de una política de establecimiento y extensión de vivienda para todos
- 543.** En el ámbito de las pensiones quiero decidir aquí para tener un Sistema Público de Pensiones propio capaz de proveer una renta suficiente para unos estándares dignos de bienestar a las personas, una vez finalizada su relación productiva con el mundo del empleo
- 544.** Erabakitzea ona delako beti, Kooperatibismoaren sorreran erabakitzeko gaitasuna izan zuten. Alternatiba bat bazegoen, kapitalismotik zetorrena, gerra ondorengo garai zailak ziren... baina egon zen kolektibo bat aukera berriak landu zituena. Hartutako neurri guztiak ez ziren egokiak izan baina erabaki batetik abiatu ziren
- 545.** Herritarroi, langileoi, ongizatea bermatzeko. Bizitzaren prekarizazio prozesuari aurre egin eta guztioi lan eta bizi duina bermatzeko. Erabaki nahi dugu, eredu ekonomiko eta sozial hau eraldatzeko
- 546.** Jendarte eredu justuago bat lortzeko. Edozein jendarte eredu eraikitzeke bizkar hezurra diren lan harremanak eta babes sozial sistema hemen, Euskal Herrian, erabaki ahal izatea oinarritzko kontua da. LHBSEE eta esparru sozioekonomiko propio bat eraikitzeke erabaki ahalmen osoa
- 547.** Lan arautegi propioa nahi dugulako, langileen estatutu propioa: zaintza lanak aintzat hartuko dituen, enplegu banaketa eta enplegu duina ziurtatuko duena, gutxieneko soldata (1200€) ezarri eta arautuko duena, diskriminazio egoerekin amaitu eta lanari balio bera emango diona, kolektibo guztien aukera berdintasuna bermatuko duena, lan osasuna eskubide bezala aitortuko duena, hizkuntza eskubideak bermatuko dituen...

- 548.** Quiero decidir nuestro sistema financiero, para haber podido decidir que nuestras cajas de Ahorros no se hubieran convertido en fundaciones privadas, centralizando aún más su regulación por el BCE
- 549.** Quiero decidir para que el sentido económico del Sistema Financiero sea canalizar el ahorro hacia la inversión (pública y privada)
- 550.** Negoziatio kolektiborako marko propioa nahi dugulako erabaki nahi dugu. Euskal Eremuko langile bat bera ere ez dadin estatuko hitzarmenen menpe egon, lan harremanen aldebakartasunarekin amaitu eta lan harremanetan demokratizazioa lortzeko eta negoziatio eredu berria bultzatzeko, defentsa kolektiboa eta birbanaketa bermatuko duena
- 551.** Gizarte Segurantzako lege propioa nahi dugulako, pentsioen sistema arautzeko, kontributibo zein ez kontributibo
- 552.** Langabezi prestazioak erabaki eta arautzeko eta babes sozialerako sistema propioa sortzeko
- 553.** Zerbitzu publikoen estatutua nahi dugulako. Zerbitzu publikoak antolatzeke ahalmena nahi dugu. Gaur egun langileen soldata eta lan baldintzak Madrilek ezartzen ditu
- 554.** Zerga politikan burujabetza osoa izateko
- 555.** Gizarte Segurantzaren kudeaketa Euskal Herrian egiteko
- 556.** Estatu espainolak duen pentsio sistemak ez duelako bermerik ematen
- 557.** Erretiroak ez ordaintzeko bakarrik langileen zergen bidez erabaki nahi dut
- 558.** Gutxienezko pentsioak Europako "Gutun sozialak" gomendatzen duenaren arabera egitea gure dugulako erabako nahi dugu
- 559.** Pentsioen inguruko erreferendum loteslea izatea nahi dugulako erabaki nahi dut
- 560.** Adinekoek zaintzen dituzten familiei laguntzea eta "diskriminazio positiboa" egiteko erabaki nahi dut
- 561.** Berdintasun Legea aplikatzea eta diskriminazioagaz apurtzeko erabaki nahi dut
- 562.** Alargunen pentsioak desagertzeko eta jubilazio pentsioa bihurtu dadin erabaki nahi dut
- 563.** Lan egiteko kultura aldatu, kontrataziorako epeak eta formazioa errebisatzea gure dugulako erabaki nahi dut
- 564.** Enplegu gaietan eta lan harremanetan ahalmen osoa estatuarena delako erabaki nahi dut
- 565.** Babes sozial sistema bere osotasunean garatzeko aukerarik ez dugulako. Pentsio sistema antolatzea eta kudeatzea estatuaren esku dago
- 566.** Enplegu gaietan ahalmen legegilerik gabe eta politika pasiborik gabe, enplegu politika eraginkor bat garatzeko ahalmena erabat mugatua delako

- 567.** Lan harremanen esparruan autogobernua indartzeko transferentzia bakarra enplegu politika aktiboen transferentzia izan delako (elkarte autonomo guztiek dute) eta ez da nahikoa
- 568.** Porque quiero vivir en un pueblo que reconozca, regule, gestione y garantice una asistencia sanitaria pública y gratuita a todas las personas
- 569.** Lan banaketa berraztertu behar delako. Beharrezkoa da hainbeste ordu lan egitea gehiago produzitzeko?, beharrezkoa da horrenbeste produzitzea?
- 570.** Hirugarren munduaren kaltetan aberasten den lehen munduan ez dudalako bizi nahi erabaki nahi dut
- 571.** Familia, bere aniztasun osoan, gizartearen ardatza izanik, lan esparruan, kontziliazioa bermatu behar dugulako erabaki nahi dut
- 572.** I + G + B ikerkuntza garatu eta aurrekontuetan duen garrantzia islatu dadin nahi dudalako erabaki nahi dut
